

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2819

AGINDUA, 2014ko ekainaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prestatzen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzeko den Agindua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei Buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 33. artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuak dioenarekin bat etorritik eta Ogasun eta Finantzak Sailak dagokion espedientearen aldeko txostena eman duela kontuan izanda, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Aldatu egiten da 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren eranskineko E) atala, Musika Kontserbatorio Profesionalei dagokiena. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu horrek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak prestatzen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzen ditu. Aldaketaren ondorioz, atal hori honela idatzita geldituko da:

«E) Arte irakaskuntzak; Lutheria.

1.— Espedientea irekitzea	9,36 euro.
2.— Derrigorrezko zerbitzuak	5,64 euro.
3.— Ikasturte osoa.	
3.1.— 1. ikasturtea	900,00 euro.
3.2.— 2. ikasturtea	900,00 euro.
3.3.— 3. ikasturtea	1200,00 euro.
4.— Gainditu gabeko irakasgaiak.	
4.1.— Instrumentua eraikitzea	550,00 euro.
4.2.— Instrumentu-praktika	93,24 euro.
4.3.— Beste edozein gainditu gabeko irakasgai	46,60 euro.
5.— Sarbide probak	28,02 euro».

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau EHAAr argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 3a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.